

SARRERA

Nola idatzi behar da: *bidai bat* ala *bidaia bat*, *dohan* ala *doan*, *gutxi gora behera* ala *gutxi gorabehera*? Zein hitz proposatzen du Euskaltzaindiak: *artxibari* ala *artxibozain*, *kotxe* ala *auto*, *sailordetza* ala *sailburuordetza*? Hauetatik zein da zuzena: *lagunduko dizut* ala *lagunduko zaitut*, *lau milana pezeta* ala *launa mila pezeta*? Esaldi jatorrak al dira hauek: *alkateak paper garrantzitsu bat jolas-ten du udaletxean*, *dekretuek aldaketa ezberdinak jasan dituzte*?

Nork ez dizkio noiz edo noiz horrelako galderak egin bere buruari, testu baten aurrean dagoela? Gehienok, ezta? Bada, horientzat idatzi dugu liburuxka hau, hain zuzen ere, eguneroko lanean sortzen zaizkigun dudak argitzeko asmoarekin.

Zalantza-dantza handia bildu dugu hemen: ortografiari, hiztegiari, morfolo- giari eta joskerari dagozkienak, eta modu egokian antolatu nahian, hurrenkera alfabetikoan jaso ditugu. Badute azalpen labur eta ulergarri bana, ez baita gure asmoa gramatika arauemaile bat egitea edo guk baino gehiago dakitenei (asko baitira) ezer irakastea. Beharrezkoa iruditu zaigunean adibideak ere sartu ditugu, azalpen horien osagarri, gehien-gehienak administrazio benetako idazkietatik ateratakoak.

Barruko edukiari buruz, bi ohar. Sarrera batzuetan hauek aurkituko dituzu: “erabili euskara batuan, euskara baturako erabili...”. Horiek ez dira, ezta gutxia- go ere, gure aginduak, Euskaltzaindiaren *Hiztegi batuan* jasotakoak baizik. Beste alde batetik, askotan izartxodun (*) hitz edo adibiderik topatuko duzu. Zer esan nahi du horrek, izarra duten guztiak gaizki daudela? Ez. Horrekin esan nahi dugu, oro har, berba edo esamolde horiek desegokiak direla; kontuz, ordea!, desegoki- tasun horien artean aldeak daudelako. Batzuetan, Euskaltzaindiaren argitalpene- tan eta gramatiketan gaitzetsitako kontuak jaso ditugu, eta horiek argi eta garbi dira baztertzekoak; beste batzuetan, berriz, han-hemen salatu izan diren erabilera berri-okerrak eta erdarakadak, eta horiekin ezin Aita Santua baino santuagoa izan. Beste era batera esateko, kalko eta erdarakada horiek ez dira denak maila berekoak; are gehiago, batzuk hain daude sartuta gure hizkuntzan, akaso euska- raren kalterako baino haren osagarri baitira. Zure esku gelditzen da, hortaz, horiek onartzea, zalantzan jartzea edota bazter uztea.

Honelako lan xumeetan gertatu ohi denez, ezin izan dugu dena sartu, eta ez dugu nahi izan, gainera; bakar-bakarrik irakurriko dituzu, beraz, gure iritziz administrazioa egunero jarduna oztopatzen duten hizkuntza-auziak, beti ere, irtenbide egoki eta adostutakoak lagun. Azken batean, *Zalantza-dantza* honek pizgarri nahi du izan *Administrazioa euskaraz* aritu dadin eta lan horretan kalitatezko idazkiak zabal ditzan. Horretarako balio badu, gu pozik.

EGILEAK

HAEEko Administrazio Hizkeraren Atala